

Ipuin harrigarria



Hemen ipuin harrigarri bat hasten da.

Mendixka ilun-ilun batean,
herri ilun-ilun bat zegoen.
Herri ilun-ilun hartan,
5 karrika ilun-ilun bat iragaiten zen.
Karrika ilun-ilun hartan,
etxe ilun-ilun bat ageri zen.
Etxe ilun-ilun hartan,
eskailerak ilun-ilunak goiti zoazen.
10 Eskailera ilun-ilun haien buruan,
selauru ilun-ilun bat zegoen.
Eta selauru ilun-ilun hartan...
eskeletoak bizi ziren.

Hiru eskeleto ziren : eskeleto handi bat, eskeleto ttipi bat eta xakur
15 eskeleto bat.

Gau batez, eskeleto handia ohetik jaiki zen eta erran zuen :

– Aspertzen ari naiz ! Zer egin dezakegu ?
– Badakit ! – erantzun zuen eskeleto ttipiak – xakurra aterako dugu
eta jende guziak iziaraziko ditugu...

20 Orduan eskeleto handia, eskeleto ttipia eta xakur eskeletoa atera
ziren.

Selauru ilun-ilunetik atera ziren.

Eskailera ilun-ilunetatik karrika ilun-ilun hartara atera ziren.

Zer gertatu zen ?

25 Zuek baizik ez dakizue...




Le Centurion argitaletxeko *Une drôle d'histoire* ipuinetik egokitua.

1 IRAKURGAIA ULERTZEN DUT

- Non gertatzen da ipuin hau ?
- Zein da askotan erabiltzen den hitza ?
- Nora doaz eskailera ilunak ?
- Zer da selaurua ? Zer da hartan ?
- Zer egiten dute gauaz ?
- Beldurgarria da ipuina ala irrigarria ? Ala biak ?

2 HIZKUNTZA ETA GRAMATIKA

- Hitz hauek idatz eta testuan aurkitu dituzunak ingura.



- Taula hau kopia eta hitz aurkariak lot itzazu gezi baten batez.

handi ▶	◀ argi
goiti ▶	◀ etzan
ilun ▶	◀ ttipi
jaiki ▶	◀ bukatu
hasi ▶	◀ beheiti

- Erranaldiak idatz eredu honi jarraikiz :

Xakurra **sukaldetik kanpora** joan da.

..... **etxe**..... **mendi**.....

..... **ikastetxe**..... **etxe**.....

..... **itsaso**..... **herri**.....